

ZUTIK

Irugarren Sorta-12'gn Zenbakia.
Tercera serie-N.º 12. IRUÑA-
PAMPLONA

ALKARTU BEARRA

Berriz ere dei bat egiten diegu abertzale guziaz "Zutik"en bidez. Aurrerakoan egiteko bearrak ez al da izango!

Gure kontra etsai izugarri bat dugu: Euzkadi'ren arrotzegitea. Euskaldun askok ez dute gure Aberria ezagutzen, zanpatuta gaude, bi alderditan erditurik, eta abar, eta abar. Gure momentua guziz larria dala esaten, ez dugu ekingo.

Abertzale geran guziok bat-eginda ere, izango dugu, bai, naiko lan, gero Aberriari azkatasuna eta euskaltasuna emateko. Alkartu gaitezen, beraz; EUZKADI SALBATZEKO abertzale guziok batera eta egokiro alkar-aditurik.

Eta, alkartzerakoan, begira dezagun ondo zartarako nai dugun alkartu. Gauza bat da geure artean batasuna egitea; beste gauza bat Franco'ren kontra jartzea. Gauza bat da abertzaleatasuna; beste bat antifrankismoa. Gu, ETA'kook, ez gera antifrankista utsak, abertzaleak baizik.

Bi malla daude, ondo agirian. Bata Euzkadi'ri begiratuta egiten dana; bestea, aldiz, Franco'ri begira egiten dana. Ogei ta zazpi urte ontan geiegi egin dugu bigarrenekorik, eta gutxiegi leenengokorik. Franco, alere, or dago.


Ondo da gaurerako antifrankistekin alkar-aditzea eta artu-emanetan egotea. Baña, zoraturik ez ba gaude, geugandik asi bear dugu. Eta "geu" ori auxe da: ABERTZALEOK. Ez, bein eta berriz, eta milla bider, antifrankistak. Ez, berriz ere, zoritxarrez iadanik il diranak eta beren nai ahaztuak.

Gaurko abertzaleen batasuna egin bear da, azkar. Auxe da leenbizikoa. Gero mintzatuko gera antifrankistekin, edo nai danarekin.

Talde batek beste batekin artu-emanetan jarri bear duenean, ez du bere burua ukatu bear. Ain zuzen ere, orrelako egoeretan siñistu bear du bere buruan. Ori leenengo ikaskaia da politikan. Baiña guk ez dugu ikasi nai dirudienez. European sartzeko Euzkadi askatu bear dugu; antifrankisten batasuna egin baiño leenago, ABERTZALEEN BATASUNA lortu bear da aurretik.

Eta batasun ori ez dugu egin bear ONU-ri begiratuta, edo CIOSL'i, edo abar.

Abertzaleen batasuna EUZKADI AZKATZEKO egin bear da, ez bestetarako. Milla paper izenpetu dituzte antifrankistak: españolak, euskaldunak eta katalanak batetik; Europa'ko eta Ameriketako demokratik batetik. Baiña inoiz ez dugu



egin tratu bat, GAURKO ABERTZALEOK, Euzkadi azkatzeko: itzein dezagun abertzale-erresistentziaz.

Asi gaitezen, beraz. Baña, españolak ez geran ezkeroz, asi gaitezen Euzkadi'ren azkatasunari begiratu, Euzkadi'ren arabera; eta ez pasa ziran gertaerai eta Franco'ri alperrik so.

Tx.